

Logroño prepara la primera feria nacional de escultura contemporánea

'Sculpto' reunirá a 75 artistas en la plaza de Abastos el próximo año con la aspiración de llenar un vacío y «romper barreras»

:: N. ALONSO

LOGROÑO. La plaza de Abastos de Logroño acogerá del 31 de mayo al 4 de junio de 2017 'Sculpto', la primera feria nacional especializada en escultura contemporánea. Con vocación de permanencia, 'Sculpto' nace de la inquietud artística de tres riojanos que componen el comité organizador: el galerista Enrique Martínez Glera, la escultora Beatriz Carbonell y el periodista José María Esteban. Los tres se dieron cita ayer en el Museo Würth junto a su directora, Silvia Lindner, para presentar esta feria «única y pionera» al dedicarse en exclusiva a esta disciplina. De esta forma, «Logroño se equipara a cualquier otra ciudad española donde haya una feria artística de gran calidad».

Los organizadores habían percibido un vacío de escultura en otras ferias de arte: «Estaba presente de una forma casi residual, y pensamos



José María Esteban, Beatriz Carbonell, Silvia Lindner y Enrique Martínez Glera, en el Museo Würth. :: J. R.

en dar cabida a toda la escultura que se está haciendo actualmente y no sólo a la que cabe en las ferias convencionales», indica Beatriz Carbonell. De ahí surge la pretensión de 'Sculpto' de «romper las barreras». En su primera edición, y con el afán de

garantizar un estándar de calidad, 'Sculpto' se abre únicamente a artistas españoles o con residencia en España que trabajen con galerías de arte; es decir, no se admitirán propuestas de artistas independientes. Sin embargo, si la iniciativa prospe-

ra, los organizadores esperan contar con creadores y galeristas extranjeros en futuras ediciones.

Se prevé que concurran al evento cerca de 25 galerías de arte, lo que puede aglutinar a unos 75 escultores. Todo ello con el objetivo de plan-

LA FERIA 'SCULPTO'

► **Qué es.** 'Sculpto' es una feria dedicada exclusivamente a la escultura contemporánea.

► **Cuándo.** Tendrá lugar del 31 de mayo al 4 de junio de 2017.

► **Dónde.** En la plaza de Abastos de Logroño.

► **Plazos.** Las galerías pueden presentar sus proyectos hasta el 14 de enero. En marzo se conocerán los artistas y obras seleccionadas.

► **Más actividades.** 'Sculpto' incluirá actividades culturales y de ocio.

tear una visión completa del panorama de la escultura contemporánea española con sus distintas vertientes y puntos de vista. 'Sculpto' contará asimismo con un equipo asesor que seleccionará los proyectos participantes. Dicho comité está formado por la directora del Museo Würth, Silvia Lindner, la productora de proyectos culturales independiente Amparo López Corral y el conservador del Museo Artium Enrique Martínez Goikoetxea.

Aun antes de empezar su recorrido, 'Sculpto' cuenta con un aval internacional: el interés de la plataforma para la promoción de la escultura contemporánea, Sculpture Network, cuyos miembros brindaron una calurosa acogida al proyecto en su reciente reunión anual en Amberes.

Halako egoeretan ohi bezala, ergel aurpegia geratu zitzaidan. Nire herriko informatika denak saltzaileak, berriro ere, ohiko irribarre-erdia eskaini dit. Horrenbestetan oparitu dit jarrera 'ulerkor' hori, dagoeneko ez dit axola.

- Ez jauna, azken belaunaldiko ordenagailuek ez dute CDentzako irakurgailurik ekartzen, hori iraganeko gauza da...

Horrelakoetan beti gertatzen zaidan legez, beldur diot ahoa zabaltzeari, nolanihi eginda ere -ziur nago- hanka sartuko dut eta...

- Baina... nire artxibo gehienak DVDetan eta CDetan gordeta ditut... hori da betidanik gomendatu digutena. Oker ez banabil zuk zeuk gomendatu zenidan aspaldian... Barrealdi xume bat egin ondoren, nire auzoko Steve Jobsek, jarrera paternalistari eutsiz, eguneko ikasgaiari ekin zion:

- Informatika munduan gaur indarrean dagoena bihar bertan joko kanpo izango duzu; adi ibiltzen ez bazara, etxean dauzkazun formatu gehienak ezdeus geratuko zaizkizu. Nik, aspaldiko partez, ordeko disko finkoak gomendatzen ditut etxeko artxiboak gordetzearren. Solteak saltzen dira eta garestitxoak diren arren, merezi du eskuratzea... Hori eta 'hodeian' gordetzea ere bai noski, baina hori ez da horren fidagarria...

ROBERTO MOSO



ADARRAREN PUNTAN

ERGEL AURPEGIA

Ehunka telebista eta ordenagailu Suizako zabortegi batean. :: WALTER BIERI

'Hodeian' bai. Deskubritu nuenean 'hodeian' sartu daitezkeela artxiboak pozarren pozez hasi nintzen ni ere 'Google Drive' erabiltzen, baina konturatu nintzenerako dohain onartzen dituzten gigak agortu egin ziren eta orain horretarako ere ordaindu egin behar da.

-Eta... ez da horren fidagarria' esan duzu?...

- Ba ez, egunen batean Googlek edo beste batek erabakitzen badu hodeia hustea... eskubide guztiak dituzte... halakoa gertatu dira jada. Teknologia berrien sarean harra-paturik gaude. Nahi eta nahi ez, ezinbestean. Eta bai, beti dago norbait -koinataren bat adibidez-



oztopo guztien gainetik salto egingo badakiena, baina gehienok, aldaketa guztien tranpetan jausten gara behin eta berriz, sitsak bonbillan bezala.

Joan den mendearen bukaeran Compact Disc-a aurkeztu ziguten

etorkizuneko formatu gisa. Gaur egun badakigu ez dela saldu zuten bezain iraunkorra eta egunez egun bere agoniaren lekuko izaten ari gara. Bere aldean 'zaharkiturik' eta modaz kanpo zeuden biniloak, indarbe-

rriturik agertzen zaizkigu nonahi, baina hori bai, gaurko biniloak ez daude jada gehienok poltsikorako eginak, orain luxuzko objektuak bilakatu dira. Zeinek esango zuen.

Tira. Tiraderak eta tiraderak ditut ikusi ezin ditudan bideoz eta disketez beteta, entzun ezin ditudan kasetez gainezka... Bitartean, pendriveak betetzen dira etengabe, non sartzerik izango ez ditudan eguna arte.

«Adi ibiltzen ez bazara etxean dauzkazun formatu gehienak ezdeus geratuko zaizkizu».

Eta zer egin? Nire azken telebistak lau urte eskas iraun zuen, bere pantaila betiko beltzera pasatu baino lehen. Zerbitzu teknikoak gaixoen oliadura eman zion, mantra bihurtzen ari den esaeraz: «merkeago izango zaizu beste aparailu berri bat erostea hau konpontzea baino». Garbigunera botatzera joan nintzenen, bere pareko tramankulu ugariekin pilatu nuen, berriro ere ergelkeria-keinu nire aurpegian marrazten zen bitartean.

Bide batez esanda, 1979. urtean erosi nuen soinu-ekipoa oraindik indarrean dut eta ez du ematen laster erretiratzeko asmoa duenik.

Garapen jasagarria? Gai polita bai, baina hurrengo JA! Jardunaldietan gai nagusi izateko edo.